

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Uxue Barkos buru, nafar kirolean 2018an gehien nabarmendu diren pertsona eta entitateendako sarien banaketa egin da

Lehendakariak kirol arloan inklusioaren alde eta emakumeen berdintasunaren alde lan egin beharra azpimarratu du

Asteazkena, 2019.eko otsailak 13

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos buru, gaur arratsaldean egin da, 2018an nafar kirolean gehien nabarmendu diren pertsonak, klubak eta entitateak aldarrikatzeko Nafarroako Gobernuak esleituriko

sariak banatzeko ekitaldia. Lehendakariak sarituen "eginkizun egituratzailea" nabarmendu du, "gizartea kohesionatzeko eta borondateak eta ilusioak bateratzeko duten gaitasuna".



Agintariak irabazleekin aurkeztu zuten ekitaldiaren amaieran.

Baluarteen egindako ekitaldian izan dira, halaber, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrera; Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile Ruben Goñi, eta Institutuko Kirol arloko zuzendariorde Primitivo Sanchez.

Maria Asurmendi saskibaloilaria eta Alberto Munarriz waterpoloko jokalaria dira iaz hautaturiko kirolaririk onenak, baina kirol arloko konpromisoak direla bide, ezin etorri izan dira gaur arratsaldean sariak jasotzera. Haiekin batera ageri dira palmaresean, emakumezko zein gizonezko talderik onenen kategorietan, hurrenez hurren, Osés Construcción Saskibaloia Fundazioa eta areto-futboleko Ardoi Aspil Ribera Navarra taldea.

Bestalde, Patxi Morentin atletismoko entrenatzaileak teknikariaren kategoriako saria irabazi du, eta federaziorik onenarena Gimnasiakoarentzat izan da. Iruñeko Tenis Klubak irabazi du klub onenaren saria eta Psicobasket Ardoi taldeak berrikuntza-proiekturik onenarena. Gainera, Vianako Udalak udal edo mankomunitate mailako kirol zerbitzurik onenaren saria erdietsi du.

Kirol jardueren babesean gehien nabarmendu den enpresaren kategoriako saria Aspil APEX Taldeak lortu du, eta Kirolaren Balioen saria, berrikitan Txirrindularitza Egokituaren Espainiako Kopan nagusitu den Sergio Pozosek bereganatu du, herritarren botoez hautaturik.

Lehendakariaren agerraldia

Sarituak zoriondu ondoren, Lehendakariak, argi utzi nahi izan du, sari hauen bitartez "emaitza onak, palmaresa eta garaipenak aitortzeaz gain, kantzaren barnean nahiz kantzatik kanpo baliatutako kirolaren berezko balioak aldarrikatu nahi ditugula, baita kirol arloko helburuak lortzeko egindako isilkako lana ere".

Uxue Barkosen esanetan, nafar kirola "sasoi onean dago" kirol estamentu guztien, enpresa babesleen eta erakunde publikoen inplikazioari esker. Hala ere, hobetzen jarraitu behar dela nabarmendu du, "irisgarritasuna, inklusioa eta gizonen eta emankumeen arteko egiazko berdintasuna lortzeko".

Agerraldian, saritakoen lorpenak aipatu ditu banan-banan. **Alberto Munarriz** waterpoloko jokalaria kasuan, N.A. Barceloneta Klubeko jokalaririk balioetsuena aitortu izana, Espainiako Selekzioarekin Europako txapeldunorde bihurtu izana eta Ligan zein Errege Kopan lortutako txapelak nabarmendu ditu. Bestetik, 2017-2018ko Ligan, 2018ko Erreginaren Kopan eta 2018ko Espainiako Superkopan garailearen txapela eskuratu zuen **Maria Asurmendi** saskibaloilariaren kasuan, "lan eta ahalegin kolektiboak" azpimarratu ditu, "osotasun bateko kide izan eta taldeko (CB Perfumerías Avenida de Salamanca) gainerako kideekin batera jarduteko grina".

Osés Construcción Ardoi Nafarroako Saskibaloia Fundazioak

Emakumezkoen Ligara igotzea lortu zuen 2018an, eta Lehendakariaren hitzetan, "ongi koipezturiko kolektibitate lehiakorraren" eredu dira, areto-futboleko **Aspil-Vidal Ribera Navarra** taldea bezalaxe, iazko denboraldian zortzigarren postua lortu baitzuen Estatuko areto-futboleko Ligan, titulua lortzeko playoffa ere jokatu zuelarik.

Horrez gain, teknikarien lanaren garrantzia azpimarratu du; kasu honetan, Maitane Melero, Javier Nagore eta Ayrton Azkue gisako atleten jardunari eusten dion Patxi Morentin atletismoko entrenatzailearena.

"Gizarte inklusioa, hezkuntza eta osasuna" dira Vianako Udaleko Kirol Zerbitzuak zehaztutako helmugak, eta horiei esker lortu du udal kategoriako golardoak. Kirola kudeatu, antolatu eta bultzatzeko kategorian, **Nafarroako Gimnastika Federazioak** egindako "lan bikaina" azpimarratu du, Estatuko Gimnastika Erritmikoko Taldeen Txapelketa Iruñean antolatzea ahalbidetu zuena.

Horrekin batera, **Iruñeko Tenis Kluba** aipatu du, klubaren kategoriako saria jaso baitu mendeurrenaren harira, "eta horrela, argi utzi du 100 urte betetzeak on baizik ez diola egin", baita **Aspil APEX Enpresa Taldea** ere, areto-futboleko Ribera Navarra taldeari eskainitako babesagatik, lankidetzaren publiko-pribatuaren eredutzat aldarrikatuz.

Azkenik, **Psicobasket Ardoi** proiektuari buruz, "helburu integratzaile eta inklusiboari esker Kirol Proiektu Berritzailearen aintzatespena merezi" izan duela adierazi du, eta Kirolaren Balioen 2018ko saria eskuratu duen **Sergio Pozos** txirrindularitza egokituko kirolaria "borrokaren, gainditu nahiaren eta irimotasunaren eredu garbia" dela ziurtatu du.

1984az geroko golardoak

Kirolaren Sariak urtez urte banatzen ditu Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (NKGI), azken urteko lehiaketetan nabarmendu diren nafar kirolarien eta kirol entitateen jardunak eta lorpenak aitortzeko. 1984an eratutako aintzatespen hauek dira Foru Komunitateak lehiaketako kirolaren arloan ematen duen urteko ohiko golardorik gorena.

Epaimahaia NKGIren, toki erakundeen, kirol federazio eta entitateen, unibertsitateek eta komunikabideen ordezkariak osatu dute.